

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru Gobernuak 500 informazio berri jaso ditu “Open Data” atarian informatikako aplikazioetan erabiltzeko

Kultur intereseko ondasun, eskualdeko garraio eta monumentu naturalei buruzko datuak biltzen dituzte, besteak beste

Martes, 29 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernuak [Nafarroako Open Data](#) Interneteko atarian 501 fitxa berri jaso berri ditu gai askori buruzko interes publikoko informazioekin: [eskualdeko hiri-garraioa](#) haren hainbat lineatan, [monumentu naturalak](#) edo Nafarroan dauden [kultur intereseko ondasunak](#).

Informazio hori guztia herritarrek kontsultatu dezakete, eta erakunde interesdunek informatikako zerbitzuak edo aplikazioak garatzeko egin dezaketen tratamendurako (web edo mugikorra), datu horietatik abiatuz. Horien adibide dira aipatutako datu batzuekin garatutako aplikazioak, museoak esaterako ([App Store](#) edo [Play Store](#)) edo [Nafarroako turismoko baliabide](#)enak.

Jasotze horrekin, dataset-en katalogoa nabarmen handitzeaz gain, gure Foru Komunitateko lurraldeari buruzko informazioa zabaltzen da Nafarroako Lurralde Informazio Sistematik ([SITNA](#)) datozen georreferentziatutako informazio-geruzen aukera zabalarekin. Fitxa horiek SHP formatuan jarri dira (Shapefile, datu berezien jabetza estandarreko formatu bat).

Informazio horiek jadanik bazirenei erantsi zaizkie: [autobus bidezko hiriarteko garraio publikoa](#), [Nafarroako Museoak](#), [Nafarroako turismo-baliabideak](#), [Nafarroako errepideen egoerari buruzko informazioa](#). Askotariko informazioari buruzko 695 fitxa daude gaur egun egituratutako hainbat formatutan: XLS, CSV, ODS, JSON, XML, KML, SHP, RSS, GTFS.

Open Data edo datuen irekiera ekimena mundu-mailakoa da, eta haren filosofiak nahiz praktikak ondorengoa bilatzen dute: Administrazio Publikoetako informazio jakin batzuk eskuragarri izatea eta mundu guztiak erabiltzea, muga tekniko edo legalik gabe. Open Data ekimenaren xedea herritarrek nahiz enpresek informazioa berriz banatu eta erabiltzea da alde guztientzako onura lortze aldera. Administrazioiko datuak eskuragarri izateak gardentasuna bermatzen du, iturri ofizialetatik zuzenean datozen



500 fitxa gehiago jaso dira Nafarroako Open Datan.

datuak eskura daitezkeelako. Eraginkortasun eta aukera-berdintasuna ere sustatzen dira, herritar eta enpresek beren beharrei erantzuteko zerbitzuak sor baititzakete Administrazioarekin lankidetzan, eta mundu guztiak eskura ditzake datuak baldintza-berberetan.

Kontuan hartu behar da sektore publikoak berriz erabil daitekeen era askotariko informazio zabala sortzen duela, informazio soziala, ekonomikoa, geografikoa edo estatistikakoa, esaterako. Informazio hori oso erakargarria da berriz erabiltzeko, osoa, fidagarria eta kalitatezkoa baita. Informazio publikoa berriz erabiliz eta banatuz administrazio publiko eta herritar nahiz enpresei onurak ekartzea lortu nahi da (administrazioek beren datuak argitaratzen dituzte, eta herritar nahiz enpresek beren behar batzuk asetzen).

Nafarroako Open Data 2011ko martxoan jarri zen abian ordura arte eskuragarri ez zeuden datu publikoak erakusgai jartzeko, partikularrek eta enpresek berriz erabiltzeko, banatzeko asmoz, eta beren beharrak merkataritza-xedeekin edo xede horiek gabe asetzeko tresnak nahiz zerbitzuak sortzeko. Etengabe garatzen eta eboluzionatzen ari den proiektu dinamikoa da informazio denbora errealean eskura ahal dadin.

Aberastasunaren sortzailea

Open Data honako zutabe hauetan oinarritzen da: gardentasuna, lankidetzeta, partaidetzeta eta aberastasun ekonomikoa sortzea datuak zabalduz, eta zabalkunde horrekin enpresek behar edo joera berriak detekta ditzakete, beren produktuak eta zerbitzuak definitzeko oinarritzakoak direnak.

Izan ere, berriki Microsoft enpresa Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarri da autobusen hiriarteko garraio publikoari buruzko artxiboen gainean interesa agertuz.

Datuen irekierak Nafarroako gizarteari onura ekonomiko nahiz ezagutzazkoak ematen dizkio zuzenean. Enpresa eta sistema ekonomikorako oro har ahal ekonomikoa du eta aberastasuna sortzeko aukera; izan ere, informazioa erabil dezakete herritarrei eta beste enpresa batzuei eskaintzeko tresna nahiz zerbitzu digital berritzaile berriak sortzeko oinarri gisa. Beraz, hazkunderari bultzada eman diezaioke, eta baita enpleguaren sorrerari ere. Bestalde, enpresen arteko lankidetzak kostuak murriztea ekar dezake, eta hori aktiboen finkatzean eta interoperatibitatean gauzatzen da.